# 2024/2025 LELOA

## BIGARREN HEZKUNTZAKO LEHEN, BIGARREN ETA HIRUGARREN MAILA

## Iraila: iritsi da gure unea

### Hileko motibazioa

Ikasturte berri bat hasi da, eta lehenengo egunetik gazteek protagonista izan nahi dute. Etorri berri den ikasturteari harrera egin. Urteko helburuak finkatzen hasi. Aurkitzen ditugun aldaketak aztertu. Denbora planifikatu, garrantzitsuena hautatu. Galdetu eta proposatu. Eta bai, batzuetan kexatu ere bai, zerbaitekin ados ez badaude. Eurak protagonista sentituko diren, protagonista izango dituen ikasturte batekin amets egitea.

### 1. astea

Ikasturte berri honen hasiera ospatzeko orri zuri bana hartuko dugu eta bertan idatziko ditugu ikasturterako asmoak. Ikaskideekin konektatzeko eta gozatzeko unea da. Denok daukagu zeregin garrantzitsu bat eta elkarrekin jardutea esperientzia aberasgarria izango da.

Une honetan, gogoeta egingo dugu geure helburuak finkatzeko, ikasturtean zehar landuko ditugunak.

**Baliabidea:** Dinamika

Orri zuri batean marraztu eta ebaki itzazue panpina batzuk, eta horietako bakoitzaren atzean idatz ezazue ikasturte honetan lortzeko asmo bat. Gero beste ikaskideekin komentatuko duzue zeuon asmoetako bat eta, azkenik, klase guztiarena izango den horma irudi batean erantsiko dituzue zeuon panpinak.

**Irudia:**



## 2 Astea

Zeuon bideko protagonistak zarete, baina... lagunduta sentitzen zarete bide hori egiteko? Zer esan nahi du zuentzat laguntzeak? Zeuok beste pertsona batzuei laguntzen diezue beren bidean?

**Baliabidea:** Poema

Irakurri Joana Raspallen ondoko poema katalanez, *L'amistat* izenburukoa, eta egin testutik atera daitezkeen sentimenduen zerrenda. Zer da adiskidetasuna poetisarentzat? komentatu Gainerakoekin adiskidetasunak zer nolako garrantzia duen zuentzat zeuon bidean.



**Amistat**

L'engruna de tristesa
que t'endevino als ulls,
quin mal vent l'ha sembrada?
A quin jardí la culls?

T'allargo la mà estesa
per si vols venir amb mi.
Una pena amagada
també es pot compartir.

No cal que me l'expliquis;
no t'ho preguntaré.
El sol, sense preguntes,
escalfa, i ens fa bé.

Joana Raspall
Barcelona 1913- Sant Feliu de Llobregat, 2013

## 3. Astea

Zer esan nahi du zuentzat laguntzeak? Inoiz lagundu dizue norbaitek? Eta zuek, lagundu diozue inori? Nahi izanez gero, komenta ezazue gainerako ikaskideekin zuri lagundu zizuten edota zeuk lagundu zenuen egoeraren bat, eta azaldu nola sentitu zinen bi kasuetan.

**Baliabidea:** Dinamika

Marraztu eskua (eskuina nahiz ezkerra) orri zuri batean, eta ebaki. Alde bietako batean, idatzi laguntza nori eman diozun edo ematea gustatuko litzaizukeen eta zergatik (lankideak, adiskideak, senideak, etab.) eta beste aldea, apaindu dezakezu nahi duzun eran. Gero, erantsi, nahi bezala, ikasgelako horma irudian

Hemen dituzu adibide batzuk:

**1. Irudia:**



**2. Irudia:**



## 4. Astea

**Baliabidea:** Debatea

Errepara ezazue honako irudi hauetan. Egin gogoeta berauen gainean. Zer iradokitzen dizuete? Zer balio ageri dira?

**1. Irudia:**



**2. Irudia:**



Irudi horiek erakusten dute laguntzeak eta partekatzeak, harremanak sendotzeaz gain, komunitate sentimendua, ongizate emozionala eta hazkunde pertsonala sortzen dituela. Ekintza horiek garrantzitsuak dira zuen bizitzan eta zuen ingurunean desberdintasuna markatzeko, eta besteak atseginak eta solidarioak izateko inspiratuz.

## 5. Astea

**Baliabidea:** Abestia

Entzun Río Roma kantariaren abestia hau, eta saiatu izenburua asmatzen. Justifikatu zeuon aukera. Asmatu duzue izenburua? Abestiaren zatiren bat barnerago iritsi zaizue? Zein?

*Cuenta conmigo*, de Río Roma.

https://youtu.be/kx0YJDbgnos?si=XQJqN4L1PyKSfhtp

*Oh*
*Uoh-oh, oh-oh-oh, oh*
*Uoh-oh, oh-oh-oh, oh-oh*
*Uoh-oh, oh-oh-oh, oh*

*Hay un mundo y mil planetas que vienen y van*
*Satélites, cometas y estrellas hay más*
*Millones de personas, formas de pensar.*

*Y a pesar de que todos somos diferentes, lo genial*
*Es que hay cosas que nos unen cuando hay voluntad*
*Es que hay sueños que nos llevan al mismo lugar.*

*Por eso tú cuenta conmigo, llueva o haya sol*
*En el desierto o en el frío, donde vayas voy*
*Porque yo soy de esos amigos que aunque no siempre ves*
*Ahí yo siempre estoy (Yo siempre estoy).*

*Por eso, tú cuenta conmigo en el bosque o el mar*
*Si un día te encuentras en peligro, me hago Superman*
*Y si los dedos de una mano sirven para contar amigos de corazón*
*Cuenta conmigo, por favor.*

*Uoh-oh, oh-oh-oh, oh*
*Uoh-oh, oh-oh-oh, oh-oh*
*Uoh-oh, oh-oh-oh, oh*

*¡Ey! Verás que el tiempo crecerá nuestra amistad
Pues, pase lo que pase, te voy a apoyar
Días buenos, días malos, yo aquí voy a estar*

*Y a pesar de que todos somos diferentes, lo genial
Es que hay cosas que nos unen cuando hay voluntad
Es que hay sueños que nos llevan al mismo lugar.*

*Por eso tú cuenta conmigo, llueva o haya sol
En el desierto o en el frío, donde vayas voy
Porque yo soy de esos amigos que aunque no siempre ves
Ahí yo siempre estoy (Yo siempre estoy).*

*Por eso, tú cuenta conmigo en el bosque o el mar
Si un día te encuentras en peligro, me hago Superman
Y si los dedos de una mano sirven para contar amigos de corazón
Amigos de corazón*

*El universo nos ha dado la oportunidad
De año con año ver crecer nuestra amistad.*

*Por eso tú cuenta conmigo, llueva o haya sol
En el desierto o en el frío, donde vayas voy
Porque yo soy de esos amigos que aunque no siempre ves
Ahí yo siempre estoy.*

*Por eso, tú cuenta conmigo en el bosque o el mar
Si un día te encuentras en peligro, me hago Superman
Y si los dedos de una mano sirven para contar amigos de corazón
Cuenta conmigo, por favor.*

*Uoh-oh, oh-oh-oh, oh
Uoh-oh, oh-oh-oh, oh-oh
Uoh-oh, oh-oh-oh, oh
Cuenta conmigo, por favor.*

# Urria: ez dugu amore emango

### Hileko motibazioa

Lehen zailtasunek sortzen dituzte lehen zalantzak ere. Gaztaroak zerbait badu da beldurrak beste era batera ikusten direla. Edo, beste gabe, ez direla ikusten. Horregatik, amore ematea ez da sartzen gazteen planetan. Bugobeko anaiak amaierara arte beren misioaren alde borrokatu ziren bezala, haien ereduari jarraitu behar diogu, zerbait ezin lortu dugula dirudienean amore ez emateko. Amore ez ematea nortaz fidatzen garen jakitea da.

## 1. Astea

Ez-Biolentziaren Nazioarteko Eguna urriaren 2an ospatzen da, Mahatma Gandhiren jaiotzako urtebetetze egunean. Gandhi indiar nazioaren independentziaren gurasoetako bat izan zen, bai eta Raj britainiarraren desagerpenaren eragileetako bat ere, (gobernu kolonial britainiarra indiar azpikontinentearen gainean). Historian eragin handiena izan duten liderretako bat bezala gogoratzen dugu eta ez-biolentziaren eta erresistentzia baketsuaren haren ptintzipioek askatasun eta eskubide zibilen aldeko mugimenduak sustatu dituzte mundu guztian.. Mahatma izengoitiak «arima handia» esan nahi du sanskritoz, eta titulu horrek Indiako eta munduko historian zer nolako garrantzia izan zuen adierazten digu.

**Baliabidea:** Debatea

Mahatma Gandhik izan zituen zailtasunei aurre eginez, erabakitasunez jarraitu zuen bere idealen aldeko borroka baketsuan. Zergatik uste duzue ez zuela amore eman? Eta zuek, ez al duzue aurkitu zailtasunik edo trabarik? Nola gainditu dituzue?

Irakurri ozenki Mahatma Gandhiren esaldi hauek. Zuen eguneroko bizitzan erabil ditzakezuela uste duzue? Zein egoeratan? Eztabaidatu eta bateratu zeuon iritziak.

*«Indarra ez dator inolako ahalmen fisikotik. Borondate menperaezin batetik baizik».*

*«Alaitasuna borrokan, nekean eta borrokak suposatzen duen sufrimenduan datza, eta ez garaipenean».*

*«Gizaki ona izaki bizidun ororen laguna da».*

*«Norbere burua aurkitzeko modurik onena besteei laguntzean galtzea da».*

## 2. Astea

**Urriaren 10ean Osasun Mentalaren Mundu Eguna da.**

Oroipen hori, Osasunaren Mentalaren Mundu Federazioak sustatua, 1992an sortu zen, osasun mentala eta osasun fisikoa parekatzeko. Helburu hauek ditu: gizartea sentsibilizatzea buru nahasteen aurrean, gaixotasun hori duten pertsonen estigmatizazioaren aurka borrokatzea eta haien atentzioa hobetzeko ekimenak bultzatzea.

Osasun mentala eta ongizate emozionala kontzeptu zabala da, eta gure eguneroko bizitzan sentitu, pentsatu edo jarduteko moduarekin lotua dago. Oreka eta ongizate egoera gisa defini daiteke, non pertsona bat bere gaitasunez jabetzen den eta bere gaitasun kognitibo eta emozionalak garatu, gizartean bizi eta eguneroko bizitzako eskakizunak egoki ase ahal dituen. Hortaz, osasun mentala pertsonen eta komunitateen ongizaterako eta funtzionamendu eraginkorrerako oinarria da, eta osasun kontzeptuaren alderdi banaezin bihurtzen da: ezin da osasun egoera ona eduki osasun mental ona eduki gabe.

**Baliabidea:** Dinamika

*Meditazioa* (mindfulness)

Noizean behin, gelditu egin behar dugu, eta gure burutik ezabatu eskolako lanak, betebeharrak etab. a etxeko lanez, betebeharrez eta abarrez atseden hartzen utzi. Horregatik, ona da une batez meditatzea, estresa gutxitzeko eta kontzentrazioa eta ongizate emozionala hobetzeko.

Honako ariketa hau egitera animatu nahi zituztegu: aulki batean eserita, jar itzazue eskuak izterren gainean, erlaxatu sorbaldak eta itxi begiak. Ezabatu itzazue burutik pentsamendu guztiak eta zentra zaitezte zeuon arnasketan bakarrik: hartu arnasa astiro- astiro, hondoko musika erlaxagarri bat entzuten duzuen bitartean.

**Baliabidea:** Musika

*Sunny Mornings: Beautiful Relaxing Music*:

https://youtu.be/hlWiI4xVXKY?si=8cCm8fmJpT-Iemhj

## 3. Astea

Segur aski entzuna izango duzue esaera hau: "Hiltzen ez zaituenak sendoago bihurtzen zaitu". Beharbada, esajerazioa da baina badu bere zentzua ere. Ezbeharrak, nekeak, zailtasunak, etab. bizitzaren zati dira, eta horiek gainditzeko prozesuak zaildu egiten gaitu eta baliabide personal gehiago lortzen laguntzen digu.

Badakizue zer den erresilientzia? Gizabanakoak egoera zail edo arriskutsu bati aurre egiteko duen gaitasuna da. Erresiliente izaten laguntzen diguten hiru faktoreak hauek dira: badaukat, banaiz eta badezaket (Grotbergen ereduaren arabera).

**Baliabidea:** Bideoa

Ikusi bideo hau:

*Zorionaren bila: "Erresilientzia:"*

https://youtu.be/jR8G-EBcpOo?si=0KJ2XgIWbEUS8ZWM

Zer egiten du aitak semeak egiten dizkion galdera guztien aurrean? Erresilientea iruditzen zaizue? Eta zuek, pertsona erresilientetzat daukazue zeuon burua?

## 4. astea

Urriaren 12a Kultur Aniztasunarekiko Errespetuaren Eguna da, Arrazaren Eguna ere deitzen dena. Egun horretan, Cristobal Colon nabigatzailea Amerikara iritsi zen 1492an, eta herri indigenen eta espainiar konkistatzaileen arteko kultura trukearen hasiera izan zen. Hainbat izen ditu, baina helburua bakarra da: «bi munduren arteko lehen topaketa» ospatzea.

**Baliabidea:** Abestia

Entzun abestia hau, eta azaldu bertako bi baieztapen hauen esanahia:

«Hain gara desberdinak eta berdinak ».

«Denok gara bat besteekiko».

*Somos uno*, de Axel (Bat gara, *Axel*):

https://youtu.be/1MibkygUPLU?si=G69nPcd_ilOGJSF1

*Yo soy lo que soy, no soy lo que ves*
*Yo soy mi futuro y soy mi ayer*
*Y hoy son tan sólo este amanecer*
*Y los ojos que te vieron nacer*
*Soy tan simple que casi ni me ves.*

*Yo soy lo que soy, no soy lo que ves*
*No soy cuna de oro ni simple moisés*
*Soy el desamparo del corazón*
*De aquel que pelea y no tiene voz.*

*Soy la mano que te quiere ayudar*
*No hablo solo de mí cuando digo que soy*
*Te hablo de ese lugar donde nace el amor que sueñas.*

*Oh oh oh oh oh*
*Somos tan distintos e iguales*
*Oh oh oh oh oh*
*Somos el que siente y el que no está*
*Oh oh oh oh oh*
*Somos tan distintos e iguales*
*Oh oh oh oh oh*

*Todos somos uno con los demás*
*La piedra y el río, el cielo, la flor*
*Todos somos uno con los demás*
*El lobo, el cordero, y el mismo Dios*
*Todos somos uno…*

*Yo soy lo que soy, no soy lo que ves*
*Soy mi pasado y soy mi después*
*Soy libre y dichoso por elección*
*Soy un loco inquieto pidiendo paz.*

*Soy la mano que te quiere ayudar*
*No hablo solo de mí cuando digo que soy*
*Te hablo de ese lugar donde nace el amor que sueñas.*

*Oh oh oh oh oh*
*Somos tan distintos e iguales*
*Oh oh oh oh oh*
*Somos el que siente y el que no está*
*Oh oh oh oh oh*
*Somos tan distintos e iguales*
*Oh oh oh oh oh*

*Todos somos uno con los demás*
*La piedra y el río, el cielo, la flor*
*Todos somos uno con los demás*
*El lobo, el cordero, y el mismo Dios*
*Todos somos uno..*

*Oh oh oh oh oh*
*Somos tan distintos e iguales*
*Oh oh oh oh oh*
*Somos el que siente y el que no está*
*Oh oh oh oh oh*
*Somos tan distintos e iguales*
*Oh oh oh oh oh*

*Todos somos uno con los demás*
*Todos somos uno con los demás*
*Todos somos uno con los demás*
*Todos somos uno con los demás*
*Todos somos uno con los demás*
*Somos tan distintos e iguales*
*Todos somos uno con los demás*
*Somos tan distintos e iguales*
*Todos somos uno…*

## 5. Astea

**Bugobeko Anaiak**

1996ko urriaren 31n, lau anaia marista hil zituzten Bugobeko errefuxiatu esparruan, dozenaka afrikarrekin batera. Honako hauek ziren: Servando Mayor anaia 44 urtekoa; Miguel Ángel Isla anaia 53 urtekoa; Fernando de la Fuente anaia, 53 urtekoa, eta Julio Rodríguez anaia, 40 urtekoa.

Lau anaia horiek urtebete baino gehiago zeramaten lanean, gaur egun Kongoko Errepublika Demokratikoa deritzogun lekuan, Ruandako mugatik gertu. Errefuxiatuak maristen benetako familia ziren, haien kezka nagusia.

Leku horretan tinko mantendu ziren Marcelino Champagnaten ametsa egia bihurtzeko, horrek zer nolako arriskua zekarren bazekiten arren. Gertaera tragiko horren 25. urteurrenean, Ubuntu taldeari eskatu zioten musika bat sortzeko oraindik gure artean bizirik dirauen oroitzapen haren omenez. Horrela, beraz, interpretatzen dugu beren bizitzak besteen alde maitasunez eta azkeneraino ematea aukeratzen duten pertsona guztiak ogiz eta ametsez eginak daudela. Ogia, partekatzen dena, eta Kristo biziaren sinboloa dena, eta ametsak, gure mundua hobetzeko eta eraldatzeko utopian sinesten dutenak.

**Baliabidea:** bideoa

Ikusi ondoko bideoklipa eta hausnartu hitzak. Zer iruditu zaizue testua? Zer iritzi duzue beren bizitza besteen alde, mugarik gabe, huts egin gabe eta heriotzaraino maitatuz ematen duten pertsonez?

*De pan y sueños*, de Ubuntu:

https://www.youtube.com/watch?v=qJhOAZ7ZZc8

En cada minuto que te quedas por dar la vida
Es un gesto de fidelidad, una lucha por la dignidad
Es por un momento que decides que no hay salida
Cuando vives en fraternidad, no estás solo al navegar.

*Es por un pasito que te quedas en la frontera*
*Porque la felicidad por hoy queda lejos de tu hogar*
*Es por sus sonrisas que ya no te viste el miedo*
*Son aliento para caminar, son aliento para no escapar.*

¡Sí! Dar la vida hasta el final es el riesgo de amar,
Corazones que son pan y sueños.

¡Sí! La respuesta es actuar, ver el cielo en este mar,
*Horizontes para un mundo nuevo.*

Son todos los lazos que se enredan por nuestras vidas
Son las cruces que abrazamos hoy, son testigos de su corazón
Es por la alegría de ser pan que se comparte

Alimento lleno de bondad, alimento de la eternidad.
*La Fe un sí que se dibuja*
*en cada huella, en cada lucha, en cada gesto, en cada opción*
*hay un camino que no cansa, si es ligero el equipaje*
*sobre la arena del amor.*

¡Sí! Dar la vida hasta el final es el riesgo de amar,
Corazones que son pan y sueños.

¡Sí! La respuesta es actuar, ver el cielo en este mar,
*Horizontes para un mundo nuevo.*

¡Sí! En la noche brillarán
*vuestras vidas hoy serán*
*como faros que nos iluminan,*
¡Sí! Las semillas brotarán
*vuestro fruto crecerá*
*Arde el fuego de recuerdo y vida.*

¡Sí! Dar la vida hasta el final es el riesgo de amar,
Corazones que son pan y sueños.

# Azaroa: gure etorkizuna eraikitzen

### Hileko motibazioa

Parte hartzeko eskubideak eskatzen digu haurrak edo nerabeak beren iritzia osatzeko moduan egon behar dutela bermatzea, bai eta eragiten dieten egoerei buruzko iritzia askatasunez adierazteko eskubidea ere, haurraren iritzia kontuan hartuta, berauen adinaren eta heldutasunaren arabera. Parte hartzeko eskubideak berekin dakar gazteek beren etorkizuna eraikitzeko hitza eta botoa izateko duten eskubidea.

## 1. Astea

Ez izan zalantzarik, eraikitzeko betiere aukeratu egin behar da: gauza batzuk hartu eta beste batzuk utzi egin behar dira. Etorkizuna eraikitzeko inspirazio gisa inguruan dagoena hartzen da: oraindik hor dagoena eta jadanik ez dagoena baina oraindik gogoratzen duguna. Dena dela, ez dugu bakarka egiten, beti egoten da horretan laguntzen digun norbait.

**Baliabidea:** Abestia

*Compta amb mi*, de Txarango:

https://www.youtube.com/watch?v=r8qNEWkvAKM

*Compta amb mi en l'últim sospir de la nit*
*i en el primer alè del dia.*
*Als teus llavis, quan badallis,*
*compta amb mi.*

*Compta amb mi quan s'oxidin els dies*
*i si la boira entela els vidres*
*dels teus somnis, quan no els trobis,*
*compta amb mi.*

*I tu i jo, en una ciutat gelada*
*desfent la neu a dins dels teus llençols.*
*I tu i jo, fins que se't curin les ales*
*jo seré aquí espantant els teus malsons.*

*Compta amb mi en els dies de lluita*
*si l'esperança et descuida.*
*Als mals passos hi haurà uns braços,*
*compta amb mi.*

*I tu i jo, en una ciutat gelada*
*desfent la neu a dins dels teus llençols.*
*I tu i jo, fins que se't curin les ales*
*jo seré aquí espantant els teus malsons.*

*I tu i jo, en una ciutat gelada*
*desfent la neu a dins dels teus llençols.*
*I tu i jo, fins que se't curin les ales*
*jo seré aquí espantant els teus malsons.*

## 2. Astea

Eraikitzeko oinarri onak finkatu behar dira. Eta etorkizunaren oinarriak orainaldian daude. Zer lortu nahi duzun eta nola lortuko duzun antolatzea eta hausnartzea lagungarria da oinarriek jasan dezaten jasotzera zoazen eraikina. Ez zaude bakarrik, zu bezala, zure ondoan beste hainbat lagun ari gara eraikitzen. Noraino iritsi nahi duzu? Zeuk erabaki behar duzu hori!

**Baliabidea:** atsotitza

Afrikako esaera: «Bakarrik bazabiltza, azkarrago ibiliko zara. Beste norbaitekin bazabiltza, urrunago iritsiko zara».

## 3. astea

Etorkizuna eraikitzea garrantzitsua da, baina zure etorkizuna besteekin partekatuta dago. Besteek ere eraikitzen dute beren etorkizuna, haientzat garrantzitsua den etorkizuna. Elkarrekin amets egiteak, imajinatzeak eta eraikitzeak inspiratu egiten gaitu, lagundu egiten digu bakarka lortuko ez genukeen zerbait errealitate bihurtzen.

**Baliabidea:** Irudiak

Begiratu arretaz irudi horiei, eta egizue lehen hausnarketa pertsonala. Ondoren, komentatu taldean bi irudiak, kontuan edukiz zeinen beharrezkoa den talde lana erronka partikularrak eta kolektiboak garaitzeko.

**1. irudia:**



**2. irudia:**



## 4. Astea

Etorkizuna orainean oinarritzen da, eta ezin da oraina eraiki besteekiko errespetua gabe. Gure banakako eskubideek gure garapena eta guztion arteko bizikidetza bermatzen dute. Gure eskubide indibidual eta kolektiboak ezagutzea, defendatzea eta sustatzea oso garrantzitsua da, eta guztiok partekatzen dugun erantzukizun pertsonala.

**Baliabidea:** Dinamika

Dinamika honetan, giza eskubideei eta/edo haurren eskubideei buruzko lau galdera proposatuko ditugu, eta ikasleek azkar erantzun behar dituzte, burura datorkion lehenengo gauzarekin, pentsatzen edo sentitzen duenarekin.

Hauek dira galderak:

- Zer jakin behar du jendeak giza eskubideei eta haurren eskubideei buruz?
- Zergatik da garrantzitsua giza eskubideen eta haur eskubideen irakaskuntza?
- Zertan bereizten dira giza eskubideen eta haur eskubideen irakaskuntza eta eskolan ematen diren beste irakasgai batzuena (adibidez, nahikoa da ezagutzak eskuratzea ala ekimenak ere hartu behar dira)?
- Zer egin dezakezue haur eskubideen eta giza eskubideen gaia hobeto ezagutzeko?

Iradokizunak:

- Ikasle pare bati eska dakioke egindako ekarpenak kontuan hartzeko eta, azkenean, ekarpen horien laburpen txiki bat idazteko.
- Emaitzak erabil daitezke gaia beste une batzuetan lantzen jarraitzeko edo beste tutoretza gai batekin lotzeko.

## 5. Astea

Besteekin partekatzeak beti eskatzen du haien errealitatea den bezala onartzea, eta horrek bestea den bezalako onartzea dakar, eta ez nik nahi nukeen bezalako. Alde horretatik, beharrezkoa da tolerantzia erakustea, begirunetsuak izatea eta besteek ematen digutena baloratzea. Besteekin positiboak izan behar dugu, eta gurekin egon daitezkeela sentiarazi behar diegu, guk ere eurekin kontatu nahi dugun bezala.

**Baliabidea:** Bideoa

Gaiari buruz gogoeta egiteko abiapuntua izan daiteke honako bideo hau ikustea:

*Different*, de Tahneek Rahman:

https://www.youtube.com/watch?v=yu24PZIbkoY

# Abendua: harrera egiteko prest

**Hileko motibazioa**

Abendua, itxaroteko eta prest egoteko aldia da. Haur baten etorrera ez da inprobisatzen den gauza, eta are gehiago Haur horrek argi eta ozenki esaten badigu: "Kontatu nirekin". Geure etxean eta geure bizitzan lekua egin behar diogu. Pozari gutaz jabe dadin utzi behar diogu eta poz hori ingurukoei kutsatu behar diegu. Eta prest egon behar dugu, Berri Ona iristen denean, jaio berriari ongietorria egitera joateko. Marcelinok eskatu zigun bezala Haurtxoari ongietorria egiten lehenak izan nahi dugu.

## 1. Astea

Itxarotea, harrera egitea. Beti dago norbait zain dagoena, eta norbait itxaroten dioguna; norbait harrera egiten duena eta norbait harrera egiten dioguna; norbait abegi egiten duena eta norbait abegi egiten zaiona... Itxaroteak eta harrera egiteak gutxienez bi pertsona inplikatzen dituzte beti; batzuetan bi lekuetako batean aurkitzen gara, eta beste batzuetan, bestean. Egoera bakoitzak zer esan nahi duen ulertzeko, bi lekuetan egotearen esperientzia bizi beharra dago.

**Baliabidea:** Irakurketa

*Igelaren otoitza.* Anthony de Mello (Editorial Sal Terrae):

— Nire laguna ez da itzuli guda zelaitik, jauna; haren bila joateko baimena eskatzen dut.

— Baimena ukatuta —erantzun zion ofizialak—. Ez dut nahi zeure bizia arriskuan jartzerik hilda dagoen gizon batengatik.

Soldadua, debekuari jaramonik egin gabe, irten egin zen eta ordubete geroago itzuli zen, larri zauritua, baina bere lagun hilaren gorpua ekarriz.

Ofiziala erabat haserretu zitzaion:

—Esan ez dizut hilda zegoela?! —esan zion— Eta orain nik bi gizon galdu ditut! Zer? Merezi zuen hara joatea gorpu bat ekartzeko?

Eta soldaduak, hilzorian, erantzun zion:

— Bai horixe, jauna. Heldu naizenean artean bizirik zegoen eta esan dit:

— Banekian nik, Jack, etorriko hintzela nire bila...

## 2. Astea

Abendua itxaroteko denbora da Zer itxaroten duzu besteengandik? Norbait zuri itxaroten daukazu? Zu zeri edo nori itxaroten zaude? Itxaropena definitzeko esan daiteke onena gerta dadin nahi izatea dela. Abendua nahien garaia da. Eta zuk, zer nahi duzu zeuretzat? Eta zer nahi duzu besteentzat?

**Baliabidea:** Otoitza

Guztion artean, otoitz honen testua irakurriko dugu, eta, hondoko musika erlaxagarri bat entzunez, ikasle bakoitzak otoitzeko esaldiei buruz gogoeta egingo du:

Pertsona guztiek lor ditzatela zoriona eta berau posible egiten duten kausak.

Pertsona guztiek saihestu ahal izan ditzatela sufrimendua eta berau eragiten duten kausak.

Pertsona guztiak hurbildu ahal izan daitezela benetako zoriontasunaren gozamenera.

Pertsona guztiek saihestu ahal izan ditzatela sentimendu negatiboak (gorrotoa, ezinikusia, bekaizkeria...) beste pertsonengandik aldenduak sentiarazten dituztenak.

Pertsona guztiek modurik onenean maitatu ahal izan dezatela.

Giro musika: https://www.youtube.com/watch?v=OJ3VpiRNfVw

## 3. Astea

Besteekin bizitza partekatzeak askotan eskatzen digu haien abegia, ardura, zaintza... lanari ekitea eskatzen digu, behar duten guztian lagundu ahal izateko. Horrek eskuzabalak izatea eskatzen digu eta argi edukitzea zer egin nahi dugun eta zergatik!

**Baliabidea:** Irakurketa

*Ebanjelioa (Lk 1,39-43;1,56):*

> Handik egun batzuetara, Maria etxetik atera eta Judeako mendialdeko hiri batera joan zen arin-arin, eta, Zakariasen etxean sarturik, Elisabeti agur egin zion. Mariaren agurra entzun bezain laster, Elisabeti punpaka hasi zitzaion haurra sabelean. Une berean, Espiritu Santuaz beterik gelditu zen Elisabet, eta goraki esan zuen:
>
> — Bedeinkatua zu emakume guztien artean eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua! Nor naiz ni, nire Jaunaren ama ni ikustera etortzeko? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, pozez punpaka hasi zait haurra sabelean. Zorionekoa zu, Jaunak esan dizuna beteko dela sinetsi duzulako!
>
> Mariak hiru bat hilabete egin zituen Elisabetekin; gero, etxera itzuli zen.

## 4. Astea

Itxaronaldia, bidea... dena iristen da bere amaierara, baina ez da dena amaitzen den amaiera, zerbait berriari hasiera ematen dion amaiera baizik. Besteen alde egiten dugun ahalegin bakoitzak, ematen dugun urrats bakoitzak helmuga baterantz, helburu baterantz bideratzen gaituzte, baina baita abiapuntu berrietara ere.

**Baliabidea:** Abestia

https://www.youtube.com/watch?v=NzEX3QMuVPM

*Little Drummer Boy*, de King + Country:

*Come they told me*
*Pa rum pum pum pum*

*A new born king to see*
*Pa rum pum pum pum*

*Our finest gifts we bring*
*Pa rum pum pum pum*

*To lay before the king*
*Pa rum pum pum pum,*
*Rum pum pum pum,*
*Rum pum pum pum*

*So to honor him*
*Pa rum pum pum pum*
*When we come*

*Pum pum pum pum*
*Pa rum pum pum*
*Pum pum pum pum*
*Pa rum pum pum*
*Pum pum pum pum*
*Pa rum pum pum*
*Pum pum pum pum pa rum*

*Little baby*
*Pa rum pum pum pum*

*I am a poor boy too*
*Pa rum pum pum pum*

*I have no gift to bring*
*Pa rum pum pum pum*
*That's fit to give our king*
*Pa rum pum pum pum,*
*Rum pum pum pum,*
*Rum pum pum pum*

*Shall I play for you*
*Pa rum pum pum pum*
*Pa rum pum pum*
*Pum pum pum pum*

*Mary nodded*
*Pa rum pum pum pum*
*The ox and lamb kept time*
*Pa rum pum pum pum*

*I played my drum for him*
*Pa rum pum pum pum*

*I played my best for him*
*Pa rum pum pum pum,*
*Rum pum pum pum,*
*Rum pum pum pum*

*Then he smiled at me*
*Pa rum pum pum pum*
*Me and my drum*

*Come they told me*
*Pa rum pum pum pum*

*A new born king to see*
*Pa rum pum pum pum*

*Me and my drum*
*Me and my drum*
*Me and my drum*
*Me and my drum*
*Rum pum pum pum*

## 5. Astea

Asko jasotzen dugu besteengandik, sarritan ohartzen ez bagara ere... Jarraian aita baten historiaz diharduen bideo bat ikusiko dugu.

**Baliabidea:** Bideoa

*Nire aitaren historia*:

https://www.youtube.com/watch?v=RzEEQLpXYt8

Historiarekin identifikatua sentitu al zara? Zer egingo zenuke zuk kasu horretan?

# Urtarrila: geure gain hartzen dugu gure erantzukizuna

### Hileko motibazioa

Urte berria asmo onez beteta dator, baina hori ez da nahikoa. Asmoak egitate bihurtzeko erantzukizuna hartu behar da. Eta asmo pertsonalekin batera, hil honek bakearen alde borrokatzeko beharra gogorarazten digu. Bakea, denon arteko benetako berdintasuna lortzeko bide bakarra da, guztion etorkizuna segurtatzeko bide bakarra. Bakearen alde lan egitea norberaren esku dago, erantzukizun hori onartu beharra daukagu, eta horregatik ausartzen gara elkarrekin esatera: "Kontatu nirekin".

## 1. Astea

Aste honetan, nork bere burua zaintzen jakiteak duen garrantzia landuko dugu, zailtasunei aurre egiteko dagokigun erantzukizuna geure gain hartuz, akatsak ezagutuz, autoestimua landuz eta geure buruan konfiantza edukiz.

Ondoren, abesti bat entzungo dugu, eta bere testutik esaldi bat aukeratzeko eskatuko dizuegu, deigarriena gertatu zaizuena, gehien motibatzen zaituztena eta zeuon agendan idatziko duzue. Era berean eska dakieke komenta dezatela euren artean zein esaldi aukeratu duten eta horretarako izan dituzten arrazoiak.

**Baliabidea:** Abestiak

1. abestia: *Comença el ball*, de Lal'Ba y Maluks:

https://www.youtube.com/watch?v=LrzojDzNJaE

*Comença el ball (comença el ball)*
*quan baixa a la pista tots fan cara d'esglai,*
és capaç de fer el que no hauria pogut fer mai,
*faria que la Beyoncé cantés el Virolai. (×2)*

*Ja fa massa temps que t'amagues,*
és hora que facis fugir les pors,
*ets més gran tu que els problemes,*
*no obtindràs res sense esforç.*
*Trenca esquemes, crida i deixa't anar.*
*No hi ha pausa, no pensis en què passarà.*

*Comença el ball (comença el ball)*
*quan baixa a la pista tots fan cara d'esglai,*
és capaç de fer el que no hauria pogut fer mai,
*faria que la Beyoncé cantés el Virolai. (×2)*

*El cor en flames com la Igualadina,*
*sense geni jo faig màgia, no com l'Aladdina,*
*m'ho enduc tot al meu pas com l'huracà Katrina,*
*soc més que un suc de taronja, pura vitamina.*

*Porto un* flow *a dintre sé que contamina,*

*passa rere passa no deixo de caminar,*

*demana'm el que vulguis, soc xef d'aquesta cuina,*

*sona la botzina i he guanyat el partit.*

*Comença el ball (comença el ball)*

*quan baixa a la pista tots fan cara d'esglai,*

és capaç de fer el que no hauria pogut fer mai,

*faria que la Beyoncé cantés el Virolai.(×2)*

*Ja no és qui creien que era,*

*es veu el foc dintre seu,*

és espurna d'una foguera,

*ja no es ven a cap preu.*

2. abestia: *Hoy te toca ser feliz*, de Mägo de Oz:

https://www.youtube.com/watch?v=nh2_ddwSJ88

Cuando un sueño se te muera
O entre en coma una ilusión
No lo entierres ni lo llores, resucítalo.

*Y jamás des por perdida*
*La partida, cree en ti*
*Y aunque duelan, las heridas curarán.*

*Hoy el día ha venido a buscarte*
*Y la vida huele a besos de jazmín*
*La mañana está recién bañada*
*El sol la ha traído a invitarte a vivir.*

*Y verás que tú puedes volar*
*Y que todo lo consigues*
*Y verás que no existe el dolor*
*Hoy te toca ser feliz.*

*Si las lágrimas te nublan*
*La vista y el corazón*
*Haz un trasvase de agua*
*Al miedo, escúpelo.*

*Y si crees que en el olvido*
*Se anestesia un mal de amor*
*No hay peor remedio*
*Que la soledad.*

*Deja entrar en tu alma una brisa*
*Que avente las dudas y alivie tu mal*
*Que la pena se muera de risa*
*Cuando un sueño muere*
*Es porque se ha hecho real.*

*Y verás que tú puedes volar*
*Y que todo lo consigues*
*Y verás que no existe el dolor*
*Hoy te toca ser feliz.*

*Las estrellas en el cielo*
*Son solo migas de pan*
*Que nos dejan nuestros sueños*
*Para encontrar*
*El camino, y no perdernos*
*Hacia la tierra de Oz*
*Donde habita la ilusión.*

*Y verás que tú puedes volar*
*Y que todo lo consigues*
*Y verás que no existe el dolor*
*Hoy te toca ser feliz.*

*Y verás que tú puedes volar*
*Y que tu cuerpo es el viento*
*Porque hoy tú vas a sonreír*
*Hoy te toca ser feliz.*

## 2. Astea

Noizean behin, gelditu eta geure barnea aztertu behar dugu. Ikusi behar da zein diren gure balioak, gure oinarri pertsonalak, zerk definitzen gaituen pertsona gisa eta zerk ematen digun sendotasuna une zailetan.

Ikasturte hasieran helburu batzuk finkatu zenituzten. Orain, hiru hilabete igaro direlarik, horrek dakartzan bizipen guztiekin, berrikusi egin behar ditugu, eta baloratu zer puntutan gauden, zer ari garen lortzen eta zer bide egin behar dugun oraindik.

Irakur itzazue berriro planteatu zenituzten helburuak eta galdetu zeuon buruari ea iritsi dituzuen ala ez.

Erantzuna baiezkoa bada, bejondeizuela! Lortu den helburu bakoitzarekin, hurrengoa lortzetik hurbilago zaudete, eta orain beste bat planteatzeko eskatuko dizuegu, aurrekoa baino anbiziotsuagoa, eta gehiago motibatzen zaituztena.

Helburu berri honekin, edo aurrekoarekin, oraindik erabat lortu ez baduzue, honako dinamika hau planteatzen dizuegu:

**Baliabidea:** Dinamika

Hartu orri bat libretatik eta ebaki ezazue paperezko zerrenda bat. Zerrenda horretan, marraztu lerro bat bere hasieran gaurko data idatziz, eta bukaeran, ekainaren 20a, ikasturteko azken eguna, alegia. Pentsa ezazue zer urrats eman ditzakezuen ikasturtearen amaierarako zuen helburua lortzeko, eta adierazi pauso horiek noizko nahi duzuen lortura edukitzea.

Azkenik, itsatsi denboraren lerro hori zuen agendan ekainari dagokion portadan, betiere aldean edukitzeko eta zeuon aurrerabideko zein puntutan zaudeten jakiteko, alegia, zein helburu lortu dituzuen, horretarako zer laguntza behar izan dituzuen, edota helburuetan zer aldaketa planteatzen dituzuen.

Materiala:

- Libreta orria.
- Boligrafo o errotuladoreak.
- Itsasgarri barra.

## 3. Astea

Aste honetan asertibitatea landuko da, eta, zehazki, nola defendatu gure ideiak jarrera pertsonalari uko egin gabe, ekimena erakutsiz, baina pentsatuz gure inguruan beste pertsona batzuk daudela, beren pentsamolde eta jarrerekin, eta elkarrekin bizi behar dugula geure jarrera defendatuz baina besteekin ere kontatuz.

**Baliabidea:** Irudiak

**1. Irudia:**



**2. Irudia:**




Ikasleei proposatuko diegu pentsa dezatela bizi izan duten egoeraren bat zeinetan ez duten jokatu irudian aurkezten diren jokabideen arabera. Jarraian komenta ditzakete egoera horiek, azalduz nola jokatuko luketen orain, beste aukera batzuk bazeudela ikusita.

## 4. Astea

Aste honetan gizarte globalen errealitate anitzak ezagutzea proposatuko dizuegu.

Pobrezia, desberdintasunak, bidegabekeriak, gerrak edo krisi klimatikoa aipatzen ditugunean, askotan zeuon ekarpentxoa egiteko eskatzen dizuegu, baina: nola egin dezakezue? Litekeena al da zuek bakarrik ez jakitea nola egin? Edo ez sentitzea ezer egiteko gai?

Badira hainbat erakunde edo instituzio, herri mailan, nazio mailan zein nazioarte mailan dihardutenak mundu hau leku hobe bat bihurtzeko, eta beti konta dezakegu eurekin. Ideia zaparrada bat egitea proposatuko diegu ikasleei, erakunde horietako zenbat ezagutzen dituzten ikusteko, eta arbelean idatziko ditugu. Bakoitzak zein arlotan lan egiten duen ere argituko dugu.

Azkenik, webguneren bat bisitatzea proposatuko diegu (edo sare sozialak, webgunerik ez badute), eta beren proiektuen artean interesgarriena zein iruditzen zaien eta zeinekin lan egitea gustatuko litzaiekeen galdetuko diegu. Gero ikasgelako kide guztien artean bateratze lana egingo dugu.

**Baliabidea:** Webgunea

GKEen munduko direktorioa:

https://www.wango.org/resources.aspx?section=ngodir

## 5. Astea

Aste honetan, inguruan ditugun bidegabekeriak nola detektatu eta, detektatu ondoren, nola jokatu aztertuko dugu. Gure laguntza nola eskaini eta gurekin konta dezaketela nola adierazi azalduko dugu.

**Baliabidea:** irakurketa eta eztabaida

*Ebanjelioa (Lk 10, 25-37), Samariar onaren parabola*:

> Orduan, lege-maisu batek jaiki eta azpikeriaz galdetu zion:
>
> —Maisu, zer egin behar dut ondaretzat betiko bizia jasotzeko?
>
> Jesusek esan zion:
>
> —Zer dago idatzia Moisesen legean? Zer irakurtzen duzu?
>
> Hark erantzun:
>
> —Maita ezazu Jauna, zeure Jainkoa, bihotz-bihotzez, gogo osoz, indar guztiz eta adimen guztiz. Eta lagun hurkoa zeure burua bezala.
>
> Jesusek erantzun zion:
>
> —Ederki erantzun duzu. Bete hori eta bizia izango duzu.
>
> Baina lege-maisuak, bere galdera bidezkoa zela adierazi nahirik, galdetu zion Jesusi:
>
> —Eta nor da nire lagun hurkoa?
>
> Jesusek erantzun zion:
>
> —Behin batean, gizon bat zihoan Jerusalemdik behera Jerikorantz eta lapurren eskuetan erori zen; zeuzkanak kendu eta, egurtu ondoren, alde egin zuten, erdi hilik utziz. Apaiz bat gertatu zen, hain zuzen, bide hartan behera, eta, gizona ikustean, bidetik okertu eta aurrera jo zuen. Gauza bera egin zuen handik igaro zen tenpluko lebitar batek ere: ikustean, bidetik okertu eta aurrera jo zuen. Baina bidaian zen samariar bat bertara iritsi eta, hura ikustean, errukitu egin zitzaion. Hurbildu eta zauriak lotu zizkion, olioz eta ardoz igurtzi ondoren; gero, bere asto gainean ezarri, ostatura eraman eta bere ardurapean hartu zuen. Biharamunean, zilarrezko bi txanpon
>
> atera eta ostalariari eman zizkion, esanez: «Zain ezazu eta, gehiago gastatzen baduzu, hurrena natorrenean ordainduko dizut». Zure ustez, hirurotan zeinek jokatu zuen lagun hurko bezala lapurren esku eroritako gizonarekin?
>
> Lege-maisuak erantzun zion:
>
> —Hartaz errukitu zenak.
>
> Jesusek esan zion, orduan:
>
> —Zoaz eta egin zuk ere beste horrenbeste.

Ebanjelioaren zatia irakurri ondoren, galdera hauek proposa daitezke ikasgelan eztabaida sustatzeko:

- Nola erreakzionatzen duzue bidegabekeria bat ikusten duzuenean?
- Zer sentimendu sortzen du zuengan bidegabekeriak ikusteak?
- Parte hartzeko gai zarete ala inpotentzia sentitzen duzue?
- Zer bidegabekeria ikusten dituzue zuon inguruan?
- Zer egin dezakezue zuen laguntza behar duenari jakinarazteko?
- Ba al dugu erantzukizunik bidegabekeria horiengatik edo pairatzen dituzten pertsonengatik?

# Otsaila: asko daukagu esateko

### Hileko motibazioa

Zaila da ezer esateko ez duten gazteak aurkitzea. Bitartekoak, hizkuntzak, teknologiak dira aldatzen dena. Gazteek presentzia iraunkorra dute mundu digitalean. Mota guztietako hizkuntzak erabiltzen dituzte komunikatzeko: hizkuntza grafikoak, bisualak, musikalak, keinuzkoak, estilistikoak. Esploratzeko eremu bat da, denak beren hazkundearen partaide senti daitezen. Eta egokitzeko denbora bat behar dugu, elkar ulertzeko lehen urrats gisa.

## 1. Astea

**Baliabidea:** Irakurketa

*Ebanjelioa (Mk 4, 1-9)*, Ereilearen parabola:

> Beste batean, irakasten hasi zen Jesus aintzira ertzean. Eta hainbeste jende bildu baitzitzaion ondora, uretan zegoen txalupa batera igo eta bertan eseri zen. Jende taldea, berriz, lehorrean zegoen, aintzira ondoan. Eta parabola bidez hitz eginez, irakaspen asko eman zien. Honela ari zitzaien bere irakastaldian:
>
> — Entzun! Atera zen behin batean ereilea hazia ereitera. Ereitean, zenbait ale bide bazterrean erori zen; eta txoriek etorri eta jan egin zuten. Beste zenbait harri artean erori zen, lur handirik ez zen tokian; eta, axaleko lurra izanik, berehala erne zen; baina eguzkiak jo orduko, erre egin zen eta, sustrairik ez zuelako, ihartu. Beste zenbait ale sasi artean erori zen: sasiek, haztean, ito egin zuten hazia eta ez zuen fruiturik eman. Gainerakoak lur onean erori ziren; erne, hazi eta fruitua eman zuten: bateko hogeita hamar edo hirurogei edo ehun».
>
> Eta ohar hau egin zien Jesusek: «Ulertzeko gauza denak uler beza».
>
> Jesusek esan zien:
>
> — Parabola hau ez duzuela ulertzen? Nola ulertuko dituzue, bada, beste parabola guztiak? Ereileak mezua du ereiten. Mezua ereiterakoan, batzuk "bide bazterra" bezala dira: entzun bezain laster, Satanasek etorri eta haiengan erein den mezua kendu egiten du. Beste batzuk "harri artea" bezala dira: mezua entzutean, berehala pozik onartzen dute; baina sustrairik gabeak eta iraupen gutxikoak izanik, mezua dela eta estutasun edo erasoaldiren bat sortu orduko, erori egiten dira. Beste batzuk, berriz, "sasi artea" bezala dira: entzuten dute mezua, baina bizitza honetako ardurak, diru gosea eta bestelako grinak nagusitzen zaizkie eta mezua ito egiten diete, fruiturik gabe utziz. Eta hona nor diren "lur ona" bezalakoak: mezua entzun, onartu eta fruitua ematen dutenak: bateko hogeita hamar edo hirurogei edo ehun».

Inoiz entzun diozue, arretaz, pertsona bati hitz egiten? Aurkezten dizkizueten hitzak eta ideiak hautematen dituzuenean, nola jasotzen dituzue? Nola entzuten dituzue?

Entzuteko bi modu daude. Lehena «entzutea» besterik ez da. Soinuak jasotzea besterik ez da. Ondoren, lehen aditze mota aurkituko dugu, informazioak deskodetzen dakiena. Ideiak jaso eta antolatu egiten dira. Mezuaren esanahia ulertzen da. Azkenik, norbaitek entzuten duen guztia jasotzen du, ez bakarrik soinu soil gisa, ezta informazio soil gisa ere, baizik eta, batez ere, «bihotz baten hitza» dei dakiokeena bezala.

Entzuteak arreta, errespetua eta konfiantza eskatzen ditu; aurrean dugun pertsonari gurekin konta dezakeela transmititzea dakar.

## 2. Astea

Historikoki, pertsona, talde eta errealitate batzuk isildu eta ezkutatu egin dira. Batzuek besteak aintzat hartzeak desberdintasun historiko horiek ezagutzea eta berauek ezabatzeko lan egiteko erantzukizuna inplikatzen du.

**Baliabideak:** Irudia eta bideoa

Pertsona guztiek daukate esateko zerbait eta, beraz, entzunak eta baloratuak izateko eskubidea. Horregatik, otsailaren 11n, “Emakumeak eta Neskatoak Zientzian” Nazioarteko Eguna ospatzen da, haien zailtasunak eta ekarpenak nabarmentzeko, jarraian aurkeztuko ditugun hauek:

**Irudia:** *Zientziak emakumeak diskriminatzen dituela erakusten duten 7 datu*:




**Bideoa:** zientzia eraldatu zuten 12 emakume:

https://www.youtube.com/watch?time_continue=432&v=4YTym3zcptg&embeds_referring_euri=https%3A%2F%2Fjoventut.diba.cat%2F&source_ve_path=MzY4NDIsMjM4NTE&feature

## 3. Astea

Otsailaren 18an Aspergerren Nazioarteko Eguna da, eta, aurreko astean egin genuen bezala, aukera ona da «kontatu nirekin» hori, geure hurbileneko pertsonetara ez ezik, geure ingurune guztira helarazteko.

**Baliabidea:** Bideoa:

**Autismoa. Dei dezagun bere izenaz: Autismo España Kanal Konfederazioa:**

https://www.youtube.com/watch?v=WM8d39oFBD4

Zuetako batzuek agian ezagutuko duzue AEA (autismo espektroaren nahasmendua) duen pertsonaren bat, edo, agian, nahaste hori duen senitartekoren bat izango duzue. Edo, beharbada, ez duzue sekula ezagutu neurodibertsitate hori duen inor. Baina esateko asko edukitzeak berekin dakar entzuteko asko edukitzea ere eta, horrexegatik, garrantzitsua dugu geure ingurunea ezagutzea, zer ezaugarri eta zer premia dituen, eta prest egotea aniztasuna aktiboki onartzeko.

## 4. Astea

Zuek guztiok esateko asko duzue: zuen ideiak, bizi zareten mundua ulertzeko eta harekin erlazionatzeko daukazuen modua, zuen jarrera eta iritzia. Une batzuetan, zuen iritzia entzuna izango da, eta beste batzuetan, berriz, ez dela horrela sentituko duzue, edo, are gehiago, ez dutela kontuan hartu ere egin.

Bakoitzak post-it bat hartzea proposatzen dizuegu, eta bertan idaztea aintzat hartua edo baloratua ez dela izan uste duzuen erreklamazio, eskari edo kexaren bat. Idazteko, DAIO, pauta jarraituko dugu:

1. **D:** Sumatu ditugun ekintzen **Deskribapena**.
2. **A:** Egoera horretan sentitu dugunaren **Azalpena**.
3. **I:** Konponbide posibleen **Iradokizuna**. Etorkizunera, arazoen ebazpenera orientatuta dago.
4. **O:** Etorkizunean gauzatuko diren ekintzen **Ondorioak**. Besteari erakustea zeinen garrantzitsua den arazoa ebaztea, aldaketaren ondorio positiboak zehaztuz (arazoa ez ebazteak inoiz ekarri ohi dituen ondorio negatiboak).

Denek beren post-itean idatzi ondoren, horiek arbelean itsatsiko dira, eta, amaitzean, bakoitzak berea ez den post-it bat hartzea proposatuko da, eta atzeko aldean soluzio, proposamen edo kontraproposamen bat aurkeztuko du idatzita aurkitu duenari erantzunez, eta berriro arbelean erantsiko du.

Azkenik, mundu guztiak bere post-ita berreskuratu eta planteatu zaion proposamena baloratu ahal izango du, aplikagarria den ala ez, bere kezkei erantzuten dien ala ez baloratuz eta bere egunerokoan beste pertsona batzuengana zabaldu dezakeen, eta bere inguruan antzeko kezkak dituzten beste pertsona batzuk badaudela jabetuz. Gainera, halakorik izanez gero, pertsona horiek beren ikuspuntutik konponbideak eman ahal izango dizkiote. .

Kexak edo zalantzak ere azter daitezke, baita proposatutako irtenbideak ere.

**Materiala**

- Post-itak

## 5. Astea

Batzuetan, kudeatzeko zailak diren egoeretan aurkitzen gara, norbaiti lagundu nahi diogulako, gurekin konta dezakeela transmititu nahi diogulako, baina ez zaizkigu horretarako hitz egokiak ateratzen. Une horietan zeresan handia dugu, baina ez dakigu nola adierazi. Askotan, keinu batek mila hitzek baino gehiago balio du, eta gure ekintzak gure alde mintza daitezke.

Ondoren, irudi batzuk aurkeztuko dizkizuegu, eta, zuen ustez, zer mezu iradokitzen duten eta zer egoeratan izan daitezkeen baliagarriak azaltzeko eskatuko dizuegu.

**1. Irudia:**



**2. Irudia:**



**3. Irudia:**



**4. Irudia:**



**5. Irudia:**



Azkenik, ikasleei eskatuko diegu komenta dezatela euren artean ea bururatzen zaizkien hitzezkoa ez den komunikazioko beste keinu edo egoeraren batzuk.

# Martxoa: bidelagun izango gaituzu

**Hileko motibazioa**

Garizumak eramango gaitu Jesusek guregana izan zuen maitasun keinu gorenera. Barnera begiratzeko berrogei egun dira, gure bihotza prestatzeko etortzear dagoenerako. Basamortuko egunak dira, baina baita bide horretan maite ditugunei laguntzeko egunak ere. Hurbil ditugunez arduratzeko, geure lagunentzako gidari eta erreferente izateko, geure lanak bertan behera uzteko prest egoteko egunak, gertu senti gaitzaten.

## 1. Astea

**Baliabidea:** Dinamika

Gogoeta, autokritika, hutsegitea eta aukera

1. Minutu batez proiektatu eta ikusiko dugu irudia.
2. Une batez hausnartu eta komentatuko dugu irudiak iradoki digunari buruz.
3. Arbelean idatziko ditugu komentario bateratu horretan sortu diren hitz nagusiak. Sortu ez badira, hitz hauek gehituko ditugu: hausnarketa, autokritika, hutsegitea eta aukera. Hitz horiek irudiarekin lotzea eskatzen dugu.
4. Garizumako denboraren zentzua eta sinbolismoa gogoratuko ditugu.
    - Martxoaren 5a, Garizumaren hasiera (apirilaren 17an amaituko da).
    - Garizuma latinezko cuadragesima hitzetik dator eta Pazkoaren aurreko berrogei eguneko aldia adierazten du.
    - Jakina denez, Aste Santuan Jesusen epaiketa, heriotza eta berpizkundea gogoratzen dira. Bere garaiko botere erlijioso eta politikoen egiturak gogor gaitzetsi zituelako hil zuten, pertsona boteretsuei hipokritak eta bidegabeak izatea leporatu zielako, pertsona pobretuen, gaixoen eta gizarteak arbuiatutakoen alde jarri zelako, eta lege eta tradizio guztien gainean agindu nagusi hau zegoela esan zuelako: «Maite itzazu gainerako pertsonak zeure burua maite duzun bezala» (Mt 22,34-40). Agintari erlijiosoek salaketa jarri zioten eta agintari politikoek kondenatu egin zuten. Heriotzaraino maite gintuela erakusteko hil zen Jesus, garbi uzteko ezerk ezin duela geldiarazi Jainkoaren maitasuna eta pertsona guztientzako bizitza on baten aldeko borroka. Berarekin beti konta dezakegun norbait. Garizumako berrogei egunek geure buruaren gaineko hausnarketa egitera gonbidatzen gaituzte, batez ere geure bizitzan, pertsonal zein sozialean egiten dugunaren gainean. Denbora horretan, Jesusi basamortuan bezala, tentazioek erasotzen digute: eta horren ondorioz, geuretzat, besteentzat eta munduarentzat onak diren gauzak egiteari uzten diogu, bat-bateko interesaren satisfazioa lortzearren.
5. Aste honetako egun bakoitzean geure buruaz aldatu nahi dugun alderdiren bat idaztera gonbidatzen zaituztegu, mundu guztiak bizimodu hobea izan dezan laguntzeko. Kontuan eduki behar dugu geure, besteen eta mundu guztiaren ongizatea.

### Irakaslearentzako oharrak

- Gogora ditzagun gure bizitzan garrantzitsuak izan diren hiru emakume: emakumeak izate hutsagatik zer bereizkeria jasan dituztela uste dugu, edo ziur dakigu?
- Zein egoeratan atera diete etekina gizon batzuek emakumeek jasan dituzten genero diskriminazioei? Pentsa dezagun egoera jakin batzuetan.
- Zer egoera bizi izan ditugu berriki gure generoa bestea izan balitz modu desberdinean bizi izango genituzkeenak? Pentsa dezagun egoera jakin batean, inplikatutako pertsonengan eta sentitzen ditugun emozio zehatzetan.
- Zer egin dezakegu gutako bakoitzak gure eguneroko bizitzan desberdintasunaz jabetzeko eta berau eragozten saiatzeko? Hausnartu erantzuna, bai desberdintasun horrek kalte egiten badigu zein mesede egiten badigu.

- Zuen laguntza izan dezakegu desberdintasunak desagerrarazteko? Hori lortzeko, mundu guztiak konprometitu behar du… kontzientzia hartuz eta haien aurka gogor jardunez!

Irudia: *Gurutze aukera*, de Agustín de la Torre:




## 2. Astea

**Baliabidea:** Dinamika

Emakumeen eta desberdintasunen aurkako Nazioarteko Eguna.

1. Jabetu gaitezen martxoaren 8an ospatzen denaz.
   - Martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna da.
   - Duela gutxi arte, «Emakume Langilearen Eguna» deitzen zen; izan ere, emakume langileak izan ziren XIX. mendetik gaur arte genero desberdintasunaren aurkako salaketaren eta emakume heldu zein neskatoen bizi baldintzak hobetzea exijitzen zuen borroka sozialaren protagonistak.

- Haietako asko beren lanpostuan hil ziren edo beren borrokagatik errepresaliatuak.
- Emakume haiei esker, gaur egun bizi dugun egoera oso bestelakoa da.
- Baina oraindik ezberdintasun asko daude, hainbat motatakoak, generoaren ondoriozkoak.
- Desberdintasun horiek denei eragiten diete: emakume, gizonezko, trans, ez-binario, mutiko zein neskato...
- Eta baldintzatu egiten dute gure pentsatzeko, sentitzeko eta are bizitzeko era.

2. Aste honetan, gure munduan «emakume» izateak zer esan nahi duen hausnartuko dugu, emakumeek jasaten dituzten diskriminazioez jabetzeko eta gizonezkoek (askotan oharkabean) dituzten pribilegioez..
3. Egoera zehatzetan pentsatzeko eskatuko diegu ikasleei, gure inguruneko munduan emakumeek gaur egun pairatzen dituzten desberdintasunak nabarmenarazten dituztenak.
4. Bi infografiak proiektatu eta arretaz begiratzen ditugu.
5. Dokumentuetan aurkezten diren generoagatiko desberdintasunez kontzientziatuko gara:
    - Gogora ditzagun gure bizitzan garrantzitsuak izan diren hiru emakume: emakumeak izate hutsagatik zer bereizkeria jasan dituztela uste dugu, edo ziur dakigu?
    - Zein egoeratan atera diete etekina gizon batzuek emakumeek jasan dituzten genero diskriminazioei? Pentsa dezagun egoera jakin batzuetan.
    - Zer egoera bizi izan ditugu berriki gure generoa bestea izan balitz modu desberdinean bizi izango genituzkeenak? Pentsa dezagun egoera jakin batean, inplikatutako pertsonengan eta sentitzen ditugun emozio zehatzetan.
    - Zer egin dezakegu gutako bakoitzak gure eguneroko bizitzan desberdintasunaz jabetzeko eta berau eragozten saiatzeko? Hausnartu erantzuna, bai desberdintasun horrek kalte egiten badigu zein mesede egiten badigu.
    - Zuen laguntza izan dezakegu desberdintasunak desagerrarazteko? Hori lortzeko, mundu guztiak konprometitu behar du... kontzientzia hartuz eta haien aurka gogor jardunez!

**1. Infografia:** Munduko desberdintasunak zenbakitan:



**2. Infografia:** Zergatik nahi dugu ordu aldaketa? Genero arrazoiak ordutegien humanizaziorako:




## 3. Astea

**Baliabidea:** Dinamika

*Emakumeei buruzko poema batean oinarrituriko bideoklipa*:

1. Irakurri, entzun eta aztertu egingo dugu "Cançó de fer camí" Maria Mercè Marçalen katalanezko poema, Mireia Vives eta Borja Penalbaren ahotsa eta musikarekin

   Bideoa: *Cançó de fer camí*:

*Vols venir a la meva barca?*
*Hi ha violetes, a desdir!*
*anirem lluny sense recança*
*d'allò que haurem deixat aquí.*

*Anirem lluny sense recança*
*i serem dues, serem tres.*
*Veniu, veniu, a la nostra barca,*
*les veles altes, el cel obert.*

*Hi haurà rems per a tots els braços*
*i serem quatre, serem cinc!*
*i els nostres ulls, estels esparsos,*
*oblidaran tots els confins.*

*Partim pel març amb la ventada,*
*i amb núvols de cor trasbalsat.*
*Sí, serem vint, serem quaranta,*
*amb la lluna per estendard.*

*Bruixes d'ahir, bruixes del dia,*
*ens trobarem a plena mar.*
*Arreu s'escamparà la vida*
*com una dansa vegetal.*

*Dins la pell de l'ona salada*
*serem cinc-centes, serem mil.*
*Perdrem el compte a la tombada.*
*Juntes farem nostra la nit.*

2. Gogoeta:

- Nor dira poemaren protagonistak?
- Zer kolore gogorarazten du lehen estrofak?
- Zer iradokitzen dizue?
- Zuen ustez, zeren sinboloa da itsasoz eginiko bidaia hori, zeru oskarbiaren pean eta bizitza naturalez betea?
- Zer sinbolizatzen dute «les bruixes d'ahir»?
- Zer iradokitzen dizue azken bertsoak: «Juntes farem nostra la nit»?
- Zer sentimendu, emozio, ideia, irudi, hitz... gogorarazten dizue abestiak?
- Ezagutzen dituzue Bideoko irudietan ageri diren emakumeetako batzuk? Hemen dituzue izen batzuk; izan ere, ezagutzen ez badituzue, horietako batzuei buruzko informazioa bila dezakezue, eta ikerketa pixka bat egin, haien historia ezagutzeko: Angela Davis, Simone Weil, Montserrat Roig, Simone de Beauvoir, Ramona komandanteordea (EZLN), Rachel Corrie, Neus Català, Emma Goldman, Kobaneko gerrillari kurduak edo Maria Mercè Marçal bera, besteak beste.

## 4. Astea

**Baliabidea:** Dinamika

*Udaberriko ekinozioa: zer erein nahi dugu?*:

1. *Udaberriko ekinozioa* izenburuko ekinozioaren aurkezpena proiektatuko dugu..

- Martxoaren 20an 09:01:25ean gertatuko da udaberriko ekinozioa
- Udaberriko ekinozioan, Eguzkia zuzenean Lurraren ekuatorearen planoan dago, eta, horren ondorioz, egunak eta gauak berdin irauten dute. Une horretatik aurrera, egunak luzatzen hasten dira: gero eta argi gehiago dago, eta bizitza berpiztu egiten da.
- Ostara, ugalkortasunaren jainkosa saxoia udaberriko emagintzat hartzen zen
- Antzinatean, eta, egun horietan, tradizioz, jaiak ospatzen dira haren omenez.
- Elizak data horietan kokatu zituen Anuntziazioa eta Pazkoa.
- Anuntziazioan, martxoaren 25ean, aingeruak Mariari iragartzen dio, Jainkoa gizon bihurturik, bere sabelean ernaldu dela.
- Berpizkundeko Pazkoa, Jesus epaitu, gurutzatu eta hil ondoren berpizten den unea da. Udaberriko ekinozioaren ondorengo lehen ilargi betearen ondorengo lehen igandean ospatzen da.
- Horrek esan nahi du aurten:

> Martxoaren 20an (udaberriko ekinozioa) → Apirilaren 13an (ilargi betea) → Apirilaren 20an (Pazkoa)

> Ez da kasualitatea. Pazko kristauak juduen pazkoan du bere jatorria, eta Pazko judua artzain herri nomadek egiten zituzten ugalkortasun errituetan oinarritzen da.

> Neguaren ondoren, herri horiek larre emankor berriak bilatu behar zituzten beren ardientzat. Udaberriko lehen ilbetean, basamortuan elkartu ohi ziren, untxia hil eta jainkosari oparitzen zioten, jendea eta artaldeak babes zitzan. Geroago, erritu horiek bat egin zuten nekazarien herrietako errituekin, haiek uztako lehen zerealekin legamiarik gabeko ogia egiten zutelarik.

- Pazkoaren sinbolo unibertsalenetako bat arrautzak dira, berauek ere ugalkortasuna adierazten baitute, jaiotzear dagoen bizitza berria, zeren bizitzara etortzeko, oskola hautsi behar dela adierazten baitute, orain arte babesten gintuen guztiari uko egin behar zaiola, alegia.
- Aurreko bizitzan mantendu gintuenari uko egitea da, bizitza berria bizitzera ausartzeko, ezezaguna baina etorkizun handikoa eta iristear dagoena.
- Udaberriko ekinozioaren energiak ugalkortasuna, sormena, poza, ausardia, kemena eta erabateko berritasuna sustatzen ditu. Indarberritu egiten gaitu neguko gelditasuna hausteko, babesten gintuzten baina mugimendua oztopatzen ziguten korazak atzean uzteko, eta bizitza berri batean garatzera bultzatzen gaitu.
- Denbora hori sinbolizatzen duten elementuak honako hauek dira: sua, gezi bertikala, espirala, hazia, loreak, arrosa eta jasmin lurrina, mineral gorrixka eta turkesak (jaspea, akuamarina edo kornalina) eta kolore berde eta gorriak.
- Hilabete honetako jarduera sinbolikoak hauek dira: ereitea, etxea ondo garbitzea eta arrautzak eta mandalak apaintzea.

2. Zer erein nahi dugu?

- Pentsa ditzagun geure buruarekin, gure talde txikiarekin, eskolarekin edo munduarekin egin nahi genituzkeen bost gauza polit.
- Zein hazi erein behar dugu gauza horiek errealitate bihurtu ahal izateko?
- Aste honetan zehar, gure mandala berdez eta gorriz margotu dezakegu, egun bakoitzean zatitxo bat. Atzean, erein nahi dugun hazi bakoitzaren sinboloa utziko dugu (marrazki bat, hitz bat, testu labur bat, sinbolo pertsonal bat…).





- Pentsa ditzagun era berean uko egin nahi diegun bost gauza (objektuak, ohiturak, gauzak egiteko moduak) iraganeko denborari dagozkiolako: eskertzen diegu lagundu izana (eta agian babestu ere bai) gaurdaino, baina orain bertan behera uzten ditugu. Paper batean idatziko ditugu eta gero papera zatitu eta bota egingo dugu.

## 5. Astea

Gizonezkoa/emakumea, argia/iluntasuna, mugimendua/gelditasuna, osasuna/gaixotasuna, normaltasuna/arraroa, ematea/jasotzea, hitza/isiltasuna, dena/ezereza... Dikotomiak gainditzen ikasi behar dugu desberdintasuna onartzeko.

**Baliabidea:** Dinamika

1. Lorenza Böttner artistari buruzko erakustaldian Paul B. Preciadok eginiko aurkezpenaren bideoa proiektatu eta aztertuko dugu:

   Bideoa: Nor izan zen Lorenza Bötttner?, Paul B. Preciado:

   https://youtu.be/EPbEcTaYGtw?feature=shared

2. Gogoeta:
   - Sarritan, giza adimenak dikotomien bidez funtzionatzen du, hau da, askotan pentsatzen dugu dena, edo gauza bat dela edo justu kontrakoa.
   - Horren ondorioz, ez mutur batean ez bestean sartzen ez diren gauzak edo pertsonak arrotzak iruditzen zaizkigu, edo are arriskutsuak
   - Eta, horrela pentsatzen dugunean, mundua izugarri sinplifikatzen dugu, eta kanpoan uzten ditugu geuri posibleak, hurbilekoak eta geure mundukoak iruditzen zaizkigun hainbat esperientzia eta pertsona.
   - Lorenza Böttner artistaren kasuak, Paul B. Preciadok aurkeztuak, egitate horretan pentsatzen laguntzen digu.

3. Planteatu ditzakegun galderak:
   - Nor naiz? Zer naiz? Nolakoa naiz?
   - Nik erabaki dut? Nola erabaki dut? Nik erabaki ez badut... nork erabaki du? Zeren mende dago ni naizen bezalakoa izatea?
   - Pentsa dezagun «arrotz», «desberdin» edo «berezi» iruditzen zaizkigun gure munduko pertsona batzuengan. Nola definituko genituzke?
   - Zer esan nahi du "normala" izateak?
   - Zer irakasten digu desberdintasunak? Nola lagun diezaguke inoiz pentsatu ez ditugun gauzak pentsatzen?
   - Berrikus ditzagun bost inpresio, ideia, galdera, irudi edo gogoeta, Lorenza Böttner artistari buruzko bideoa ikusi ondoren gogoan geratu zaizkigunak.

# Apirila: aitortu nahi zaitugu

## Hileko motibazioa

Pazkoa bizi izan duenak ezin du isilean gorde. Sentitzen dena hain da bizia ze bihotza dardarazten eta geure barrena dantzan jartzen baitigu. Nola gorde hori isilean? Gazteen bizitzan ez dago gertaera garrantzitsurik kontaezin ahala dei eta mezuz lagundua ez denik, xehetasun xumeenak ere aztertuz. Ez dago alaitasunik ezkutuan gorde nahi denik. Eta Jesusen Pazkoa da alaitasunik handiena. Hilabete honetako bi ardatz nagusiak harrera eta zaintza dira. Taldeak senidetzeko eskaera egiten dugu, helduak txikienekin, adibidez. Nola jardun dezakete lankidetzan? Nola lagun dezakete adinekoek txikienak etxean senti daitezen? Zer eman diezaiekete txikiek komunitateko gainerako kideei?

## 1. Astea

**Baliabidea:** Dinamika

Zer ospatzen dugu? Zer dago ospatzen dugunaren atzean? Dena argi daukagu ala badira errealitate batzuk ihes egiten digutenak?

1. Agustin de la Torreren irudia proiektatu eta aztertuko dugu.
2. Iristear dauden ospakizunei buruz gogoeta egingo dugu.
   - Hil honetan Aste Santua ospatzen dugu: ohiko erritmoa etengo dugu, oporraldi labur bat daukagu, agian, ospakizun berezi batzuetara joango gara, eta jarduera tradizionalak egingo ditugu, hala nola Pazko arrautzak apaintzea edo "la mona" deritzona jatea.
   - Jaiegunetan, gelditu, eguneroko jarduerak eten, orain arte egindakoa berrikusi eta aurrera egiteko prestatu ahal izango gara.
   - Baina era berean balio digute tradizioak gogora ekartzeko, egunerokotasunari erritmoa emateko eta gure komunitate-bizitzari zentzua emateko ere.
   - Batzuetan, funtsean, esperientzia horiek errealitate paradoxikoak ezkutatzen dituzte.
3. Irudia komentatuko dugu.
   - Zer iradokitzen digu?
   - Neure jarreretako zein gogorarazten dizkidate irudian iradokitzen diren ideiek?
   - Neure komunitatearen zein jarrera gogorarazten didate irudian iradokitzen diren ideiek?
   - Neure munduaren zein jarrera gogorarazten didate irudian iradokitzen diren ideiek?
4. Hausnarketa egingo dugu geure eguneroko bizitzan eta gure ospakizunetan ezkutatuta dauden errealitateen gainean. Ezkutatuak, ikusezin bihurtuak, baztertuak dauden bizitzetan pentsatuko dugu.
   - Zer bizitza daude gure errealitatearen hondoan?
   - Zer egin dezakegu haiek ikusteko?
5. Har dezagun munduari arretaz begiratzeko konpromisoa, askotan oharkabean geratzen diren baina gure eguneroko bizitzaren sakonean dauden errealitateak ikusteko, nahiz eta askotan ez ditugun aintzat hartzen. Askotan, berariaz begiratzen badiegu soilik ikusten ditugun errealitateak dira. Konta dezagun eurekin, saia gaitezen eurek ere gurekin kontatu ahal izan dezatela, bizitza horiek ere garrantzitsuak baitira. .

**Irudia:** *Aste Santuko Gurutzea,* Agustín de la Torre:



## 2. Astea

**Baliabidea:** Dinamika

**Koherentziaren ondorioak:** gurutzea eta berpizkundea:

1. Gogoeta egingo dugu ikasleekin Gurutzearen eta Berpizkundearen zentzuaz.
    - Dakigunez, Aste Santuan Jesusen epaiketa, heriotza eta berpizkundea gogoratzen dira. Bere munduko botere politiko eta erlijiosoaren egiturak gogor gaitzetsi zituelako hil zuten, pertsona boteretsuei hipokritak eta bidegabeak izatea leporatu zielako, pertsona pobretuen, gaixoen eta gizarteak baztertutako pertsonen alde jarri zelako, eta lege eta tradizio guztien gainean agindu nagusi hau zegoela esan zuelako: «Maite itzazu gainerako pertsonak zeure burua maite duzun bezala» (Mt 22,34-40). Agintari erlijiosoek salaketa jarri zioten eta agintari politikoek kondenatu egin zuten. Heriotzaraino maite gintuela erakusteko hil zen Jesus, eta Haren berpizkundeak argi erakusten du ezerk ezin duela geldiarazi Jainkoaren maitasuna eta pertsona guztientzako bizitza on baten aldeko borroka.
    - Ebanjelioaren kontakizunean, Gurutzeak gure ideiekin amaieraraino koherenteak eta kontsekuenteak izan nahi badugu onartu behar dugun guztia adierazten du.
    - Eta Berpizkundea gozamena eta loria da, zuzen jokatu izanagatik jasotzen den "saria" da.
2. Gogoeta: zer gurutze eta zer berpizkunde ikusten ditut neure baitan, beste pertsonengan, neure mundu txikian eta gainerako mundu zabalean?

- Historian zehar, pertsona asko jazarri, gaizki tratatu, kartzelaratu, torturatu eta hil dituzte boteretsuen pribilegioak zalantzan jartzeagatik eta gizarte justiziaren alde borrokatzeagatik. Ezagutzen al duzue horietako kasurik?
- Gainera, pertsona askok uko egin diote bizimodu eroso, erraz, aberats eta oparoak gozatzeari ez zutelako onartzen beste pertsona batzuek bizimodu txarra edukitzea, injustiziak eta diskriminazioa sufrituz. Seguru ezagutzen dituzuela kasu ospetsuren batzuk. Aipa itzazue.
- Pertsona horietako askori esker gaude hemen, bizi gara honela eta gure mundua da gaur egun den bezalakoa.
- Gertatu al zaizue inoiz zuontzat ona zen zerbaiti uko egin beharra beste pertsona baten edo batzuen mesederako? Zuen kasua ez bada, ezagutzen duzue norbait egoera hori bizi izan duena?
- Seguru gogoratuko dituzuela gerora onura handiagoa lortzeko sakrifizio txikiren bat egin duzueneko egoerak, eta ziur asko, lortu duzuenean, poz handia sentituko zenuten. Komenta ezazue zeuon artean esperientzia horietakoren bat.

## 3. Astea

**Baliabidea:** Dinamika

*Altxor bat gara. Eduki dezagun hori kontuan!*

1. Irudiari erreparatuko diogu.
2. Iradokitzen dizkigun inpresio, gogoeta eta ideiak komentatuko ditugu.
   - Pertsona bakoitza altxor bat da, opari bat, Jainkoaren dohain bat. Gutako bakoitza gara hori: geuretzat eta besteentzat.
   - Baina, sarritan, ez gara ohartzen. Okerreko lekura zuzentzen dugu begirada.
3. Lagun diezaiogun batak besteari geu garen altxor hori aurkitzen:
   - Eskuak bihotzaren gainean jarrita, begiak itxi eta astiro-astiro hartuko dugu arnasa.
   - Begiak zabaldu eta, eskuak bihotzean ditugula, gurekin dauden pertsonei begietara begiratuko diegu. Banaka, denei begiratu diegun arte. Eta bakoitza zer altxor mota den pentsatuko dugu eta zer eratan den opari bat niretzat.
   - Guretzat opariak diren hiru pertsonagan pentsatuko dugu. Paper batean mezu bat idatziko diegu (bat bakoitzarentzat), bertan azalduz (hitzez, marrazkiz edo nahi den bezala) zergatik diren altxor bat guretzat. Asteko momenturen batean, helaraziko diegu mezua.

**Irudia:** Barneko altxorra, **Agustín de la Torre:**



## 4. Astea

**Baliabidea:** Dinamika

*Justizia globalaren irrika*:

1. Ebanjelioaren zati bat proiektatu eta irakurriko dugu (Mt 25, 34-45).

Irakurketa: *Ebanjelioa (Mt 25, 34-45)*:

Orduan, erregeak eskuinekoei esango die:

—Zatozte, nire Aitaren bedeinkatuok; har ezazue munduaren sortzetik zuentzat prestatua dagoen erreinua. Gose bainintzen eta jaten eman zenidaten; egarri, eta edaten eman; arrotz, eta etxean hartu ninduzuen;

biluzik nengoen, eta jantzi egin ninduzuen; gaixo, eta bisitatu; kartzelan, eta ikustera etorri".

Orduan, zintzoek esango diote:

—Jauna, baina noiz aurkitu zintugun goseak eta jaten eman genizun, edo egarriak eta edaten eman? Noiz aurkitu zintugun arrotz eta etxean hartu, edo larrugorri aurkitu eta jantzi? Noiz aurkitu zintugun gaixo edo kartzelan eta ikustera joan?

Eta erregeak erantzungo die:

—Benetan diotsuet: Nire seniderik txikien hauetako edozeini egin zeniotena, neuri egin zenidaten.

Gero, ezkerrekoei esango die:

—Alde niregandik urruti, madarikatuok, deabruarentzat eta haren lagunentzat prestatua dagoen betiko sutara. Gose bainintzen eta ez zenidaten jaten eman; egarri, eta edaten eman ez; arrotz, eta ez ninduzuen etxean hartu; biluzik, eta ez ninduzuen jantzi; gaixo eta kartzelan, eta ez zineten ikustera etorri.

Orduan, haiek ere esango diote:

—Jauna, baina noiz aurkitu zintugun gose edo egarri, arrotz edo larrugorri, gaixo edo kartzelan, eta guk lagundu ez?

Hark erantzungo die:

—Benetan diotsuet: Txikien hauetako edozeini ukatu zeniotena, neuri ukatu zenidaten.

2. Gogoeta:

- Zein da parabola horren zentzua?
- Pentsatu behar dugu edozein pertsonari egiten dioguna… Jainkoari egiten diogula.
- Zer unetan ikusi dugu pertsona edo komunitateren batek zerbait behar zuela… eta ez diogula eman? Zein kasutan egin dugu hori? Pentsa dezagun egoera jakin batzuetan (tokia, unea, inplikatutako pertsonak, sentimenduak, emozioak, ondorioak…) eta elkarren artean komentatuko dugu.
- Zein izan daitezke axolagabekeriaren ondorioak? Nola egin diezaiokegu aurre?
- Pentsa dezagun ea gugandik hurbil badagoen guk eskain diezaiokegun zerbait behar duen norbait edo zerbait (pertsona jakin bat, egoera jakin bat). Egin dezagun edo har dezagun konpromisoa hori egiteko (konpromiso zehatza).

## 5. Astea

**Baliabidea:** Dinamika

*Munduko argiekin eta baita iluntasunekin ere kontatzen dugu. Iluntasuna bakarrik argitu daiteke*:

1. Laburbilduz.

- Abenduarekin, mirari bat iragarri ziguten: Jainkoa, ideia urrun, abstraktu eta ukiezina, beste mundukoa zena... gizaki egingo zela, gorputz sentibera, zaurgarria, ukuilu batean jaioa, zainketak behar dituena, gaixorik dagoena, sufritzen duena, hunkitzen dena, gozatzen duena...
- Eta, Eguberriekin, jaio egin da: hemen dago. Haren etorrerak guztia aldatu du, eta gizartean iraultza bat gertatu da: lehen sufritzen zuten pertsonek bizitzaz goza dezakete orain, eta botereaz abusatzen zuten pertsonak lotsagarri geratu dira orain.
- Herriko jende askok jarraitu zion: batzuek goitik behera aldatu zituzten beren bizitzak, beste batzuek aldaketa txikiak eginten Joan ziren... Aurrerantzean ezer ez zen izango ordura arte bezala.
- Aste Santuarekin, ikusi dugu Jesus mundu bidegabe batean jaio zela, eta aberatsak beren pribilegioak galtzeko beldur izan zirela... eta, mundu berri on eta bidezko baten etorrera onartzeko eraldatu ordez, aurka egitea erabaki zutela; horregatik Jesus zigortu, iraindu eta gurutzean hil zutela.
- Baina Haren ideiak (justizia globala), Haren balioak (denenganako maitasun baldintzagabea), jendea tratatzen zuen moduak (sufritzen zuenarengana hurbilduz, arduratuz, baloratuz, zainduz eta sendatuz), Haren entregak, bere bizia guztion bizitza onaren zerbitzura jarriz... bizirik iraun zuten, heriotza gainditu zuten, eta haren indar inspiratzaileak, gaur egun, zailtasunak zailtasun, Haren ereduari jarraitu nahi dioten pertsona askoren pentsamendua eta ekintza bultzatzen ditu.

2. Iluntasuna argitzen dugu.

- Pentsa ditzagun Jainko-Maitasuna gure bizitzetan presente egiten deneko bost egoera zehatz: pertsonak, esperientziak, espazioak...
- Pentsa ditzagun bost egoera jakin, gure ustez argitu beharrekoak direnak: gure munduaren alderdi batzuk, gustatzen ez zaizkigunak sufrimendua sortzen dutelako, bai guretzat eta bai beste pertsona batzuentzat.
- Pentsa dezagun nola bihur dezakegun iluntasuna argitasun: zer egin dezakegu guk iluntasunean bizi diren pertsonak, egoerak edo errealitateak argitzeko?
- Gaur gauean, etxean, familiarekin, kandela bat piztu eta otoitz egin dezakegu argitu nahi dugunaren alde. Edo, are hobeto, astean zehar egunero kandela bat piztu dezakegu, eta argitu nahi ditugun egoera desberdinen alde otoitz egin.

## Maiatza: hemen gaude

### Hileko motibazioa

Norberarekin kontatzeko eskatzeak berekin dakar prestasun eta zerbitzu jarrera. Adibiderik onena Mariaren irudian daukagu. Jainkoaren deiari erantzuteko prest dago, erreserbarik gabe, eta, aldi berean, ekimena bere gain hartuz, Kanan egin zuen bezala. Ikasturtea amaitzen ari garen honetan, garrantzitsua da ekimena ez galtzea, zerbitzuko amantala jartzea eta geure abilidadeak besteen zerbitzura jartzea, eta Mariak bezala esatea: "Kontatu nirekin".

### 1. Astea

Maiatza loreen hila da, kanpoko usain gozoen hila. Udaberri betean gaude eta gure zentzumenak kasu askotan ongizate eta atseginezko sentsazioak dakarzkiguten estimuluz betetzen dira. Hau da edertasunaren definizioa. Baina edertasuna gauza subjektiboa da. Pertsona batentzat polita dena, agian ez beste batentzat ez da hala, eta hori ere aberastasuna da.

**Baliabidea:** Dinamika

*Koloreen eztanda*:

- Binaka, egizue gaur jaiki zaretenetik sentitu dituzuen gauza politen zerrenda. Izan daiteke ikusi duzuen zerbait, esan dizueten hitz bat edo zuekin izan duten detaileren bat, sentsazio ona eragin dizuena.
- Hartu paper zuri bat, eta marraztu ederra dela iruditzen zaizuen objektu bat.
- Marrazkiaren erdian idatzi: "gaurko edertasuna", eta, inguruan, idatzi ongizate sentsazio hori eragin dizueten zerrendako elementuak.
- Gero margotu eta eduki dezakezue astean zehar ikasgelan esekita.

Adibidez:




### 2. Astea

Maiatza, gainera, kristau askok, maristak bereziki, Mariari, Jsusen amari eskaintzen diogun hilabetea da. Maria, ama gisa, beti egon zen Jesusen ondoan, baldintzarik gabe, ahal zuena eta bere denbora guztia semearen eta Jainkoak gomendatu zion proiektuaren alde emanez. Ordainez ezer espero gabe ematen; galdetu gabe... laguntzeko, bakoitzak bere erabakiak har ditzan utziz, bakoitzaren prozesuak errespetatuz.

**Baliabidea:** Irakurketa eta Dinamika

Irakur ditzakegu Teodor Suauk idatziriko hitz oso iradokitzaile batzuk. Eskuzabaltasunaz mintzo dira, besteei laguntzeaz, barrutik betetzeaz, bestea bera izan dadin uzteaz, pertsona guztienganako errespetuaz. Egiazko maitasunaz mintzo dira.

Irakurketa: Kafarnaundik Jerusalena, Teodor Suau (Montserrateko Abadiako argitalpenak):

*No vulguis que tots els vents sien teus.*
*Ni que els aucells cantin tots la teva cançó.*
*Salmeja tu la tonada de l'aucell que passa i no torna.*
*Sia el vent senyor dels seus camins!*

*Obre la gàbia al rossinyol que tant estimes.*
*Si queda, sabràs que ha quedat per tu!*
*Si fuig, no li corris darrere.*
*Deixa'l partir.*
*Sense recança.*
*El seu vol és la teva joia!*

*Treu aigua del teu pou per als pelegrins.*
*Omple la teva gerra.*
*I posa-la ran del camí.*
*No tornis a mesurar el que han begut.*
*Alegra't, només, d'haver tret l'aigua del teu pou*
*i d'haver deixat la gerra ran del camí.*

*Sia el teu cor un hort obert.*
*Sense bardissa.*
*Que entrin a collir la teva fruita.*
*La que vulguin, però, i quan la vulguin.*
*Que no sempre agrada i a tothom*
*la que ha estat bona per a tu i a tu t'agrada.*

- Poema irakurriko dugu.
- Debate bat egingo dugu iradokitzen digunari buruz.
- Konklusioak aterako ditugu: Lehenbizikoa hauxe: eskuzabaltasunez bizi behar dugula.
- Ikasleei eskatuko diegu idatz dezatela post-it batean mezu atsegin bat ikasgelako norbaitentzat.

## 3. Astea

Maria beti dago presente Jesusen eta Apostoluen bizitzan, baina gutxitan aipatzen da Ebanjelioan. Harrigarria bada ere, une garrantzitsuenetan bakarrik agertzen da: jaiotzan, heriotza, berpizkundea... Eta, bere agerpenetan, betiere, komunitatearen zerbitzuan dihardu. Gaur egun, badira pertsona batzuk bizia ematen dutenak, inoiz hitzez hitz, bizikide dituzten pertsonen alde. Gehienetan, hain eskuzabalak diren pertsona horiek ikusezin bihurtzen dira, ez dira agertu ohi komunikabideetan. Horregatik, gaur horietako batzuk ezagutzera gonbidatzen zaituztegu.

**Baliabidea:** Dinamika

*Aurkez ditzagun ikusezin bihurtutako hainbat pertsonaren zerbitzuak*:

- Ikasle bakoitzari papertxo bat emango diogu, 1etik 10era zenbakituak.
- Ondoren, ordenagailua martxan jartzeko eta hau bilatzeko eskatzen diegu:

- Webgunea: *beren bizia besteen alde eman duten 10 pertsona:*

  https://es.aleteia.org/2020/06/24/10-personas-que-han-entregado-su-vida-por-los-demas-en-2017/

- Ondoren, zenbakiaren arabera egokitu zaien pertsonari buruzko informazioa irakurri behar dute, eta, azkenik, pertsona bera egokitu zaien bizpahiru ikaskidek klaseko kide guztiei azalduko diete bereganatu duten informazioa.

## 4. Astea

**Baliabidea:** Bideoa

*Kalkutako Ama Teresa, munduko baztertuei eskainiriko bizitza bat*:

https://www.youtube.com/watch?v=7ytG0Eq5Q0U

**Kalkutako Teresa, zerbitzu jarrera:**




Maria beti zegoen laguntzeko prest. Ezbaian egon gabe, presaka abiatu zen mendirantz bere lehengusina Isabeli laguntzeko. Berehalaxe eskatu zion Jesusi ezkonberriei laguntzeko Kanako ezteietan ardo gabe geratu zirenean. Ez du ezer geroko uzten, beti prest dago laguntzeko, horixe du bere izaera, bizitza ulertzeko modua.

Gaur, beste emakume bat gogoratuko dugu behartsuenei laguntzen ia 45 urte eman zituena, zorion eta optimismo harrigarriarekin. Emakume txundigarri hori Kalkutako Teresa izan zen.

Bideoa ikusi ondoren gogoeta egiteko galderak:

- Geure jarreran ba al dugu Kalkutako Teresaren antzik?
- Arduratzen al gara besteez?
- Azkar joaten al gara behar gaituztenei laguntzera?
- Pentsa ezazu zeure inguruneko emakumeren bat, bere beharra duten pertsonekiko eredugarri dena.

# Ekaina: munduko azken bazterreraino

### Hileko motibazioa

Ikasturte honen amaieran, nahi genuke haur eta gazteek protagonistago izaten ikasi izana. Geure eguneroko hezkuntza jarduera maristetan egiten dugunagatik ez ezik eurak munduaren transformatzaile izatea espero dugulako. Marcelino Champagnatek esan ohi zuen munduko elizbarruti guztiak sartzen zirela bere planetan. Mundua gaur egun askoz hurbilagokoa da globalizazioari eta digitalizazioari esker. Horregatik, haur eta gazteak protagonista izatera deituak daude, eta gure misio horizonteak zabaltzeko garaia dugu, gazteek gida gaitzaten utziz munduko bazter berrietara.

## 1. Astea

Hil honetan gauza asko dauzkagu ospatzeko. Horietako bat San Marcelino Champagnaten festa da, ekainaren 6an. Baina ez da oroipen historiko soil bat, erronka bat baizik, hark bezala amets egiten jarraitzeko. Ekaina ikasturtea amaitzeko hila bada ere, proiektu berriak amesteko hila ere izan dadila proposatzen dizuegu, hasiera berri bat alegia.

Jarraian entzungo dugun abestiak hasiera berri horretaz dihardu Marcelinoren ikuspegitik. Izan ere hark bere garaian izan zuen ametsak eta proiektuak bizirik dirau eta eguneratzen joan behar dugu gaur egungo errealitatetik eta sortuz doazen premia berrietatik abiaturik.

**Baliabidea:** Abestia

*Un nuevo comienzo (Hasiera berri bat),* Jordi Vicente eta Raül Juan:

https://youtu.be/WOaD39qTD_o?si=nmzXmnjVf0eAlAOH

- Abestia entzuten dugun bitartean, hitzak proiektatu egingo ditugu.
- Ikasleei eskatuko diegu gustatu zaien esaldi bat aukeratzeko eta beren agendan idazteko aste honetako egunen batean.
- Jarraian eska diezaiekegu elkarren artean komentatzeko zer esan nahi duen eurentzat aukeratu duten esaldi horrek.

## 2. Astea

Marcelinok konfiantza osoa zeukan Mariarengan. Marcelinorentzat, Maria erreferentzia bat zen, eta, askotan, irtenbiderik ez zegoela zirudienean, Champagnatek errezatu egiten zion Amabirjinari laguntza eskatuz. Zalantzarik gabe, Marcelinok konfiantza osoa zeukan Mariarengan.

Ikus dezagun adibide bat:

> 1823ko otsaila zen. Bourg-Argentaleko anaietako bat oso gaixorik zegoen. Aita Champagnatek ez zuen anaia hiltzen utzi nahi, bisita bat egin eta bere bedeinkazioa eman gabe.
>
> Eguraldi txarra zegoen eta bazter guztiak elurrez estaliak zeuden, baina horrek ez zion burutik kendu anaidi hartara oinez joateko ideia, anaia hura azkenetan zegoela jakin zuen bezain laster. Kontsolatzeko hitz batzuk esan eta bere bedeinkazioa eman ondoren, La Vallara itzultzeko bideari ekiteko prestatu zen. Anaidi hartako kideek ahaleginak egin zituzten, ari zuen ekaitzarekin, biharamunera arte bertan gera zedin konbentzitzeko. Baina alferrik izan ziren haien erreguak eta aholkuak. Bere ausardiak bultzatuta, Aita Champagnatek kasurik ez egitea erabaki zuen. Laster damutuko zen.
>
> La Vallara itzultzeko, Anaia Estanislao lagun zuela, Pilato mendiak zeharkatu behar zituen. Abiatu eta bi ordura, galdu egin ziren. Ez ziren gai bidearen arrastorik aurkitzeko, eta noraezean zebiltzan. Ari zuen elur ekaitzarekin ez zuten ezer ikusten eta ez zekiten aurrerantz ala atzerantz egiten zuten. Hainbat orduz galduta ibili ondoren, Estanislao

anaia hain zegoen ahituta ze aita Champagnatek besotik heldu behar izan zion zutik mantentzeko eta pauso batzuk ibilarazteko. Baina, hotzak eta elurrak garaituta, laster bera ere leher eginda geratu zen, ibiltzeko indarrik gabe. Anaiarengana zuzendu eta esan zion: "Anaia maitea, Andre Maria txit Santuak laguntzen ez badigu, gureak egin du. Jo dezagun berarengana eta eska diezaiogun atera gaitzala baso honen erdian elurretan bizia galtzeko aurkitzen garen arriskutik". Hitz haiek esatean, ohartu zen anaia, zutik egoteko ere indarrik gabe zerraldo erori zela. Konfiantzaz beterik, anaiaren ondoan belaunikatu zen eta sutsuki otoitz egin zuen. Gero, anaiari zutitzen lagundu eta pauso batzuk emanarazi zizkion. Gehienez ere hamar bat pauso izango zituzten ibiliak, handik hurbil argi bat ikusi zutenean, gaua baitzen. Hala heldu ziren etxe batera eta bertan pasa zuten gaua. Hotzak akabatzen zeuden biak eta, batez ere anaiak, denbora behar izan zuten suspertzeko.

Aita Champagnatek behin baino gehiagotan aitortu zuen, laguntza behar zuten une zehatz hartan iritsi ez balitzaie, biak hilko zirela, eta Amabirjina txit Santuak salbatu zituela heriotzatik…

**Baliabidea:** Dinamika

Norekin kontatzen du Marcelinok?:

- Ikasleei azalduko diegu Marcelino Champagnatentzat pertsona garrantzitsuenetako bat Maria izan zela. Erreferentetzat zeukan eta, horrexegatik, haren esku uzten zuen egiten zuen guztia.
- Elurretan galdu zireneko pasadizoa ozenki irakurri ondoren, argi utziko dugu Marcelinok konfiantza osoa zeukala Mariarengan. Zioenez, hark beti esaten omen zion "kontatu nirekin".
- Ondoren, galdera hau egingo diegu:
  > Nor dira beti aldean eta betiere laguntzeko prest dauzkazun pertsonak, behar duzun aldi oro beraiengana jotzeko?
- Denek erantzun dutenean, egunean edo astean zehar pertsona horiei mezu bat bidaltzeko eskatuko diegu ikasleei, egokien deritzoten baliabidea erabiliz, guretzat zeinen garrantzitsuak diren adierazteko eta eurek ere konta dezaketela gurekin.

## 3. Astea

**Baliabidea:** Hermitage etxearen irudia

Maristen lanetan gero eta ezagunagoa egiten ari den irudi honek Hermitage irudikatzen du, maristen egoitza nagusia. Etxea Marcelinoren besoetan dago, baina, ikus dezakegun bezala, kolore askotako pertsonak ageri dira bertan. Kolore horiek mundu maristaren eta hura osatzen dugun pertsonen aniztasuna adierazten dute.



Itudia proiektatuko dugu ikasgelan eta une batez geure inpresioak partekatuko ditugu:

- Zer ikusten duzue irudi horretan? Ba al dakizue zer den?
- Zuen ustez zein etxe da hori?
- Zer esanahi du irudiak? Lehen begiratuan zer adierazten duela esango zenukete?

Jarduera honen helburua distiratzen duen komunikate bateko kide sentiaztea da. Komunitate marista askotarikoa da, eta kolore guztietako argiak igortzen ditu; izan ere, argi guztiek batera argi gehiago ematen dute bakarka eta banaka emango luketena baino.

## 4. Astea

**Baliabidea:** Dinamika





Zer konpromiso hartzen duzu Marcelino Champagnaten ametsa bizirik mantentzeko? Zein leku nahi duzu zeuretzat mahaian?:

Aurreko baliabideetan ikusi dugunez, denok osatzen dugu komunitate marista eta Marcelino Champagnaten proiektua gaur egungo mundura eramateko ametsa bizirik mantentzen dugu. Gutako bakoitza Hermitagetik irteten diren argi horietako bat gara. Gainera, denok mahai beraren inguruan gaude, abestiak dioen bezala. Eta zuk, zer leku daukazu mahaian? Zer leku gustatuko litzaizuke? Zergatik? Zer jartzen duzu mahaian denek goza dezaten? Zer kualitate jartzen dituzu besteen zerbitzura, elkar aberasteko?

- La Vallako mahaiaren irudia aurkezten zaie, lehen komunitatearen mahaia zela azalduz.
- Mahai baten irudia jartzen da, eta esaten zaie bakoitzak gainerakoen zerbitzura jarri nahi duen bere baitako zerbaik, kualitete onen bat, adierazi behar duela, Marcelino Champagnaten ametsa gaur egun egia bihurtzeko. Mahaian jartzeko tresnaren batekin sinbolizatuko dugu kualitate on hori (platera, edalontzia, sardexka, koilara, labana, ezpain-zapia...).
- Bakoitzak jar dezake mahai tresnaren bat bere kualitate on horren sinbolo gisa.

## 5. Astea

Marcelinok bazuen esaldi garrantzitsu bat oso berea zuena, eta anaiei helarazi nahi izan ziena: «Munduko elizbarruti guztiak sartzen dira gure planetan». Baieztapen horrekin adierazi nahi zuen Ebanjelioaren mezua eta estilo marista leku guztietara iritsi litezkeela eta mundu guztiak goza litzakeela.

Orain, ikasturtearen amaieran gauden honetan. geure buruari galde diezaiokegu... eta orain, zer? Urtebete elkarrekin bizi izan ondoren, zer erronka ditugu aurrean?

**Baliabidea:** Dinamika

*Elkarrekin goaz, Marcelino Champagnat lagun dugula, geure erronkei aurre egitera*:

Begiratu beheko irudiari. Marcelino Champagnat da eta korrika doa premiazkoak deritzen erronkei aurre egitera.

**Baliabidea:** Irudia



Imajinatu Marcelino zarela, eta esazu zein diren, zure ustez, eskola marista bateko ikasle gisa, edota etengabe aldatzen ari den gizarte bateko kide gisa ditugun erronkak.

Presta dezakegu kartoi mehe bat, erdian marrazturik M handi bat duena, Marcelinoren edo Maristen ikur gisa, eta bertan idatziko ditugu planteatzen ditugun erronkak.

Ikasturtea eta ekaina amaitzeko, ondoko abestia entzungo dugu.

**Baliabidea:** Abestiak.

*Tú serás hoy Champagnat*, de Kairoi (*Gaur zu izango zara Champagnat*):

https://www.youtube.com/watch?v=rt1mmjQb6Ek

*Marcel·lí*, de Kairoi:

https://www.youtube.com/watch?v=E2TJmknyz1k